- Ea... Ospitalean ibili naizen aste hauetan, Fatma izeneko neska bat ezagutu dut, eta... zera... etxean, nola jada bakarrik bizi garen eta...

Pentsatuko duzue ez zela ondo irten, baina aitatxok, konfiantza osoa jarri zuen amatxorengan, eta paperak eta Martak emandako argibide guztiak jarraitu ondoren, Euskal Herrira etorri nintzen, eta hemen bai, merezi nuen familia aurkitu nuen.

Hau izan zen amatxok orain dela bi urte kontatu zidana, antza denez horrela iritsi nintzen hona. Eta azken bi urteetan ere hurbildu izan naiz nire lurralde ederretara, Saharara.

Orain, igande guztietan aiton-amonekin bazkaldu dezaket, izeba Amaiarekin joan naiteke erosketetan, nire neba-arreba Nora eta Oihan-ekin egon naiteke... Libre izan naiteke, merezi dudan bezala, iragan beltz hura zapalduz.

"Iragan beltz hura zapalduz"
Arrate Gaztelu Agirre
14 urte - Larrabetzu
2011 - D kategoria
1. saria